

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako ekonomia % 0,3 hazi da 2013ko azken hiruhilekoan, hortaz, berez amaitu da atzeraldia

*Urteko batez bestekoa -% 1,3 da, Espainiako ekonomiaren urteko batez bestekoaren -% 1,2ren antzekoa.*

Jueves, 30 de enero de 2014

Nafarroako ekonomia % 0,3 hazi zen 2013ko azken hiruhilekoan, aurrekoan baino hiru hamarren gehiago, hortaz, aurreko hiruhilekoan iradokitako atzeraldia amaiara baieztatu da. 2011ren amaieratik zifra positiboak dituen lehen hiruhilekoa da. Urteko batez besteko tasa -% 1,3 izan zen, Espainiako ekonomiaren erregistratutakoaren antzekoa (-% 1,2).

Gaur argitaratu den Nafarroaren hiruhilekoko kontabilitatearen aurrerapenetik jasotako [zifrak](#) Lourdes Goicoechea lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak eman ditu ezagutzera. Adierazi duenez, Espainiako ekonomiaren suspertze-abiadura erdietsi dugu; denboraldi horretan estatuko BPGd-a ere % 0,3 hazi da. Urte arteko bilakaerari erreparatuta, Nafarroak -% 0,6koa izan du, Espainiakoa baino (-% 0,1) bost hamarren gutxiago.

Lourdes Goicoecheak azaldu duenez, hiruhilekoen arteko % 0,3ko hazkuntzak eta urte arteko hazkuntza-tasen hobekuntzak (-% 0,6 2013. urtearen amaieran, -% 1,8 2012. urtearen azken hiruhilekoan) aurtengo urteko lehen hiruhilekoan ekonomia hazi egingo dela aurreikusteko konfiantza ematen dute.

Lehendakariordeak azken sei urteetan krisialdian Nafarroak izan duen bilakaera ere baloratu du. Espainian pairatutakoa baino txikiagoa izan da, izan ere, 2013ko laugarren hiruhilekoko Nafarroako BPGd-a 2007ko hiruhileko bereko BPGd baino % 1,5 txikiagoa izan zen. Estatu osoan, aldiz, aldea 5 puntu gehiagorena zen (-% 6,6).

Nafarroako ekonomiaren bilakaeraren aurreikuspenei dagokienez, ekonomia hazi egingo da, % 0,6 2014an, munduko ekonomia nagusiak bizkortzen ari direlako, batez ere eurogunea. Gauzak horrela, Europako ekoizpen industrialak hobetzeak Nafarroako industria bultzatzea dezake eta, sektore horrek Foru Komunitatearen BPGd-an duen garrantzia kontuan izanik, Nafarroako gainerako ekonomia indartzen lagun dezake. Egoera hori bistakoa da kanpoko sektorean; esportazioak lehengoratu egin dira, Europako atzeraldietatik 2012an behea jo ondoren.